



Uauatxua

1.- EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOAREN MUSIKA GELA

Zuzeneko musika klasikoa gure bizitza interesgarriagoa eta liluragarriagoa egiten duen eta betirako bidelagun izango dugun ondasun ukiezina dela sinistuta lan egiten dugu lehen egunetik.

Denboraldi bakoitzean, Mikel Cañadak koordinatzen duen Hezkuntza Saitetik, 30-40 jarduera bitartean eskaintzen ditugu Orkestra gizartearen eta kulturaren arlo guztietara iritsiko den heziketa-gunea bilakatzeko.

Gizarteak haurrei eta gazteei bizigarri asko eskaintzen dizkien honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da zubiak eta konexio-bideak ezartzea, musika klasikoarekiko gerturatzea erraztuko duten musika-jarduera ugari eskainiz. Xede horrekin, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak sare egonkor bat mantentzen du gure herriko hezkuntza arloarekin, bere eremu eta maila guztietan.

2007. urteko “Tempo di Martxa!” ekimenak hasiera eman zion lan-ildo honi. Musika-gela ibiltari horrek eskola asko bisitatu zituen eta 20.000 ikasletik gora hartu zituen. Ordutik hona, eskolentzako jarduerak ugari eta egonkortsu dira, bai jarduera-kopuruari dagokionez bai parte hartu duten eskolei eta entzuleei dagokienez ere.

Jarduera horietara bertaratu direnek beren musika-gaitasunak, sorkuntza eta ideien trukatzeari garrantzia eman dute. Arte ezberdinen uztartzea ikusi ahal izan dute oholtzaren gainean eta beren inibizioak eta lotsa gainditu dituzte. Musika klasikoa beren bizitzako zati bat bilakatu da.

2.- KONTAKTUA

KONTAKTUA/CONTACTO	
MIKEL CAÑADA	Miramon Pasealekua, 124
mcanada@euskadikoorkestra.eus	20014 Donostia / San Sebastian
Telefonoa: 943 01 32 32 – 658 947 821	https://www.euskadikoorkestra.eus/musika-gela

3.- SARRERA

Uauatxua; hau da, Sehaska kanta. Historian zehar sehaska kantei garrantzia handia izan dute kultura desberdinetan. Herrialde bakoitzeko sehaska kanta herrikoiak belaunaldiz belaunaldi

Uauatxua

ahoz transmititu dira eta horrela iritsi zaizkigu. Horien balioak musika klasikoko konpositore handien inspirazio iturri bihurtu ditu, eta horrela hauen sehaska kantak mundu mailan famatuak bihurtu dira. Zeharkako Txirulak, Harpak, Perkusioak, Kontrabaxua eta ahotsak osatutako instrumentu talde goxo baten eskutik munduan zehar aurkitu ditzakegun sehaska kanta desberdinak eta hauen hizkuntza ezagutuko ditugu; hitz jokoz eta onomatopeiez beteak daudelarik.

4.- FITXA TEKNIKOA

FITXA TEKNIKOA

Kontzertuaren izenburua: Uauatxua

Saioen egunak eta ordua: 2018ko urriaren 18,19,22,23,24 eta 25ean 09:45etan eta 11:15etan.

Tokia: Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Egoitza Miramonen (Donostia)

Iraupena: 45 minutu

Zein publikoari zuzendua: Haur hezkuntzako ikaslegoari

Aforoa: 160

5.-FITXA ARTISTIKOA

FITXA ARTISTIKOA

Interpretatzaileak: EOS-eko talde instrumentala eta kolaboratzaileak

- Hélène Billard-Alirol, Zeharkako Txirula
- Francesca Romana Di Nicola, Harpa
- Enara Susano, Kontrabaxua eta Ahotsa
- Anthony Lafargue, Perkusioa

Aurkezlea:

- Ana Eguiazabal

Gidoia:

- Mikel Cañada

Gida didaktikoa:

- Ana Eguiazabal

6.- JARDUERAREN HELBURUAK

6.1.- Helburu orokorrak

JARDUERAREN HELBURU OROKORRAK

- ▶ **Zuzeneko musika entzutearen bizipenaz gozatzea.**
- ▶ **Musika-adierazpen artistikoa ezagutzea eta baloratzea.**
- ▶ **Sortzeko eta pentsatzeko gaitasuna garatzea.**
- ▶ **Sentimendua, zentzua eta sentsibiltatea garatzea.**
- ▶ Baloreetan hezteak, musikaren bidez.
- ▶ **Pertzepzio-mailen garapen fisikoa sustatzea.**
- ▶ Soinuaren aukeretan murgiltzea eta sakontzea.
- ▶ **Musika eta bere lengoaiaren edo mezuaren eta ingurunearen arteko lotura bilatzea.**
- ▶ Entzutea eta parte hartzeko nahia sustatzea.
- ▶ Entzuteko modu apropos eta arduratsu bat garatzea.
- ▶ **Pultsazioaren eta erritmoaren barneratzea garatzea.**
- ▶ Lehenago entzundako obrak entzutean ezagutzeko gaitasuna garatzea.
- ▶ Espresio artistikoa gauzatzeko nahia sustatzea.
- ▶ **Oinarrizko mailan musika karaktere desberdinak sentimendu, egoera eta bizipen ohikoekin erlazionatzeko gai izatea.**

6.2.- Berariazko Helburuak

JARDUERAREN BERARIAZKO HELBURUAK

- ▶ Kontzertuan parte hartuko duten instrumentuak eta beren soinuaren aukerak gertuagotik ezagutzea.
- ▶ Kantatzeko gaitasuna hobetzea eta ahotsaren aukeretan sakontzea.
- ▶ Kantatzeko modu apropos bat garatzea, ahots kordak zainduz eta arnasketa aproposa erabiliz.
- ▶ Gorputz mugimenduekin entzuten ari diren musikaren izaera oinarrizko maila batean adierazteko gai izatea.
- ▶ Psikomotrizitate gaitasunak garatzea imitazioaren bitartez, musika laguntzen dituzten mugimenduak eginez.
- ▶ Onomatopeien lengoaia, jatorria, zentzua eta hauek eguneroko soinua imitatzeko duten gaitasuna ezagutzea.
- ▶ Instrumentu desberdinek onomatopeiak sortzeko dituzten aukerak ezagutzea.
- ▶ Musika pieza mota jakin batean dauden antzekotasun eta desberdintasunak ikustea, jatorrizko tokiaren eta kulturaren arabera.

7.- EGITARUA

EGITARUA	
1.Binbili Bonbolo	Herrikoia (EUSKAL HERRIA)
2.Numi Numi	Herrikoia (ISRAEL)
3.Tili Tili Bom	Herrikoia (ERRUSIA)
4.Olelé	Herrikoia (CONGO, AFRIKA)
5.Uauatxoa	Herrikoia (EUSKAL HERRIA)
6.Haurtxoa Sehaskan	Gabriel OLAIZOLA (EUSKAL HERRIA)
7. Nana	Manuel de FALLA (ANDALUZIA)
8.Canción de cuna para dormir a un negrito	Xavier MONTSALVATGE (KATALUNIA)
9.Arroró	Teobaldo POWER (KANARIAR UHARTEAK)
10.Berceuse	Teresa CARREÑO (VENEZUELA)
11.Lullaby of Birdland	George SHEARING eta George David WEISS (ESTATU BATUAK)
12. La vo'	Gaetano Emanuel CALÍ eta F. Impellizzeri (SIZILIA, ITALIA)
13.Toutouig	Herrikoia (BRETAGNIA, FRANTZIA)
14. Sakura	Herrikoia (JAPONIA)

8.- JARDUERA MODU EGOKIAN GAUZATZEKO AHOLKUAK

JARDUERA MODU EGOKIAN GAUZATZEKO AHOLKUAK

-Haur asko etorriko direnez saio bakoitzera, egoitzara 20 minutu lehenago etortzea eskatzen dugu, ikasleak lasaitasunez eser ditzagun, nahi duenak komunera joateko aukera izan dezan, etab. Puntualtasuna erabat beharrezkoa dugu egunean bi saio daudenez koordinazio lanak ondo gauzatu ahal izateko.

-Ezinbesteko kasuetan salbu, kontzertua hasi eta gero aretotik ez dutela irteterik izango jakinarazi eta ulertaraziko zaie ikasleei.

-Ikasgelan bezalaxe gure aretoan ez dagoela jaterik edo edaterik ulertaraziko zaie ikasleei.

-Bertaratuek jardueraz gozatzeko aukera izan dezaten, parte hartzea eskatzen zaienean izan ezik, ahal den neurrian isilik egon beharko dutela ulertaraziko zaie ikasleei.

-Aurreko urtetako egoerak ikusirik gomendagarria iruditzen zaigu irakasleak ikasleen artean banatuta egotea. Askotan ikasleek hobe ikus dezaten irakasleak alboetan kokatzen dira eta horrelakoetan zailagoa da gerora ikasleek eskatzen zaienean parte hartzea eta jarrera egokia mantentzea. Ildo beretik, datozen irakasle guztien parte hartzea funtsezkotzat jotzen dugu.

9.- OHARRAK

OHARRAK

-Gidan hainbat jarduera proposatzen diren arren, denak ez dira kontzertuan gauzatuko. Jarduera gehienak osagarriak dira, eta ikasleekin klasean lantzen direnean kontzertuaren gozamenerako laguntza handia da. Tailerrean berez, kontzertuan zeintzuk eskatuko zaizkien azaltzen da. Hala ere azken momentuko aldaketak egon litezke gidoiak edo beste hainbat arrazoik hala eskatuta.

-Kontzertuaren arabera ikasleek orkestrako musikari talde bat, edo orkestra osoa ikusi ahal izango du. Fitxa teknikoan adierazi egingo da zein den kontzertu bakoitzean ikusi eta entzun ahal izango den taldea.

-Gidoia kontuan izanda eta kontzertu bakoitzaren ezaugarrien arabera ikasleen partehartzea desberdina izango da. Irakasleek orokorrean beren ikasleek kontzertuan partehartze handia izan dezaten nahi dute, eta horretarako klasean lan asko egiten dute. Baina ikastetxe guztien egoera ez da berdina eta beharbada ez dute jarduerak lantzeko denbora gehiegirik. Hori dela eta ulerkortasuna eskatzen dizuegu kontzertuko partehartzea urriegia iruditzen bazaizue klasean egindako lanaren ostean. Batez ere ikasleak tristetuta geratzen badira.

10.- JARDUERA DIDAKTIKOEN GIDA PRAKTIKOA

10.1.- Lehen Jarduera

LEHEN JARDUERA	
Helburua	Olelé Koreografia ikasi
Obra	Olelé (Afrikar Herrikoia)
Materiala	Olelé abestiaren bideoa Olelé abestiaren partitura Olelé abestiaren koreografia Gorputza prestatzeko hainbat ideia
Jardueraren garapena	<ol style="list-style-type: none"> 1. Haurren gorputza prestatu tentsiorik gabe dantzatzeko mugikortasun jokuekin; esaterako, ispilua, masajea etab. 2. Pieza entzun. 3. Koreografia poliki ikasi irakasleak abesten duelarik. 4. Musikarekin koreografia egin. <p>OHARRA: Nahi izanez gero abestia ere abestu dezakete koreografia egiten den bitartean baina ez da beharrezkoa.</p>

10.2.- Bigarren Jarduera

BIGARREN JARDUERA	
Helburua	Uauatxua abestia ikasi
Obra	Uauatxua (Euskal Herrikoia)
Materiala	Uauatxua abestiaren partitura Uauatxua abestiaren audioa Ahotsa eta gorputza berotzeko hainbat ariketa
Jardueraren garapena	<ol style="list-style-type: none"> 1. Haurren gorputza prestatu tentsiorik gabe abestu ahal izateko, mugikortasun jokuekin; esaterako, ispilua, masajea etab. 2. Haurren ahotsa abesteko prestatu haien ahotsa kaltetu ez dezaten, arnas joku eta ahots beroketaren bidez. 3. Abestia entzun. 4. Abestia ikasi. 5. Abestu musikarekin edo gabe.

10.3.- Hirugarren Jarduera

HIRUGARREN JARDUERA	
Helburua	Numi Numi abestia ikasi
Obra	Numi Numi (Israeldar Herrikoia)
Materiala	Numi Numi abestiaren letra (itzulia) Numi Numi abestiaren partitura Numi Numi abestiaren audioa eta bideoa Ahotsa eta gorputza prestatzeko hainbat ariketa
Jardueraren garapena	<ol style="list-style-type: none"> 1. Haurren gorputza prestatu tentsiorik gabe abestu ahal izateko, mugikortasun jokuekin; esaterako, ispilua, masajea etab. 2. Haurren ahotsa abesteko prestatu haien ahotsa kaltetu ez dezaten, arnas joku eta ahots beroketaren bidez. 3. Abestiaren letra landu lehenik beste hizkuntza batean delako. 4. Abestia ikasi 5. Abestia musikarekin batera abestu nahi bada. <p>OHARRA: Kontzertuan ziurrenik abestiarekin batera koreografia txiki bat egingo da oinekin erritmoa eramanaz gutxi gora behera. Imitazio bidez egingo dugu, baina nahi izanez gero kantatzean ere albo batera eta bestera erritmoa eramaten praktikatuta daiteke.</p>

10.4.- Laugarren Jarduera

LAUGARREN JARDUERA	
Helburua	Sehaska kanten arteko antzekotasunak, ezaugarriak eta desberdintasunak (badaude) ikustea oinarrizko maila batean
Obra	Sehaska kanta desberdinak
Materiala	Sehaska kanta desberdinen partiturak Sehaska kanten audioak edo bideoak
Jardueraren garapena	<p>Jarduera hau hainbat modutara egin daiteke. Guk hiru aukera desberdin proposatuko dizkizuegu.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Irakasleak aukeratutako sehaska kanta desberdinak entzun daitezke eta ikasleek haietan ikusten dituzten ezaugarriak esan ditzateke. (Esaterako komentatu daiteke zer nolakoa den iraupena, abiadura, izaera, instrumentazioa...sakonago landu nahi izatekotan itzulpenak begiratzuz ere letrak aztertu daitezke). Gerora, nahi izanez gero konparaketak egin daitezke haien artean. 2. Irakasleak adjektibo asko aipatu ditzake edo txartel batzuetan idatzi edo margotu ditzake, sehaska kanten benetako ezaugarriekin eta asmatutako beste batzuekin. Irakasleak aukeratutako pieza desberdinak entzun eta bakoitza entzun eta gero egiazko ezaugarriak guztien artetik aukeratu. 3. Materialean sehaska kanta herrikoiak eta konpositoreek idatzitakoak daude. Nahi izanez gero bakoitza dagokion taldean sailkatzera jolastu dezakezue ere. <p>OHARRA: Jarduera hau lantzeko hainbat modu gehiago aurki ditzakezue, denak aproposak entzumena lantzeko eta ikasleek arretaz entzuten ikasteko. Hori da benetazko funtsa.</p>

10.5.- Bostgarren Jarduera

BOSTGARREN JARDUERA	
Helburua	Musikaren izaera desberdinak antzematea eta gorputzaren mugimenduekin adieraztea edo hitzekin deskribatzea oinarrizko maila batean
Obra	Obra desberdinak
Materiala	Piezen bideoak
Jardueraren garapena	<p>Jarduera hainbat modutan gauzatu daiteke denbora, gela eta adinaren arabera. Guk hainbat proposamen ekartzen dizkizuegu.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Pieza desberdinak jarriko dira klasean, eta sortarazten dietenaren inguruan marrazkiak egin ditzatela. Modu honetan entzuten ari diren musika beren irudimenarekin eta sentimentuekin lotu egingo dute. Gero marrazki horiek komentatu daitezke. Horrela denoi sentimendu berdinak sortarazten dizkien edo ez aztertu daiteke. 2. Irakasleak aukeratutako musika zatiak entzun daitezke klasean eta entzun eta gero elkarren artean musika horiek sortarazi dietena komentatu daiteke. Modu honetan arreta handiagoa jarri beharko litzateke entzumenean, beraz zatiak oso luzeak izan ez daitezela gomendatzen dugu. 3. Irakasleak sentimendu desberdinak adierazten dituzten txartel handiak (Taldeka erabakiak hartzeko edo horman jartzeko gero hitzez komentatzeko) edo txikiak (banaka egiteko) egingo ditu. Ikasleek musika zati bakoitza entzuten dutenean txartel bakoitzarekin erlazionatu beharko dute. 4. Irakasleak musika zati batzuk edo pieza batzuk aukeratuko ditu. Musika zati horiek jartzean ikasleek beren gorputz atalak, edo beraiek gela osotik musikak iradokitzen dien moduan mugitu beharko dituzte edo mugitu beharko dira. (honetarako zati kontrastatuak dituzten piezak erabat gomendagariak dira) <p>OHARRA: Ariketa hau ere beste hainbat modutara egin daiteke. Garrantzikoena sentimendu desberdinak sor daitezkeela antzematea da, eta ikasleei haien bizipen eta sentimenduekin konektatzen laguntzea. Emozio desberdinak identifikatzen laguntzea.</p> <p>Pieza batzuetan irudiak ez du inolako garrantziarik, beste kasutan aldiz oso bideo ikusgarriak dira, beraz interesgarria litzateke ariketaren ostean bideoak ikuskatzea eta ez soilik entzutea.</p> <p>Kontzertuko piezak erabili nahi izatekotan aurreko jarduerako karpetan aurki ditzakezue.</p>

SEIGARREN JARDUERA	
Helburua	Onomatopeien lengoaia oinarritzko mailan ezagutzea
Obra	
Materiala	Euskarazko onomatopeia erabilieneren zerrenda Onomatopeien hainbat bideo Onomatopeien irudiak Onomatopeiak lantzeko hainbat jolas
Jardueraren garapena	<p>Onomatopeiak ziurrenik gelan jada lantzen dituzue oso erabilgarriak direlako soinu desberdinak lantzeko. Guk hainbat proposamen luzatzen dizkizuegu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Oka-ren jolasa: Materialean oka moduko bat dago, kasila bakoitzean onomatopeia bat sortzeko irudia dago. Banaka edo taldeka jolastu daiteke tablero horrekin edo antzeko batekin. 2. Onomatopeien txartelak erabil daitezke irakasleak horiek erakutsi eta ikasleek soinua imitatzeko (taldeka, edo gela osoa). 3. Txartelak erabiliz ere, talde batek txartel bat aukeratu eta aurkako taldeko bati erakusten dio. Horrek soinua egin behar du eta taldekideek txartela zein den asmatu behar du. 4. Youtubeko bideoak ere erabil daitezke horiek jarraitzeko edo antzeko jokoan adibide moduan erabiltzeko. <p>OHARRA: Beste jarduera batzuekin gertatzen den bezala hainbat modutara landu daitezke onomatopeiak. Edozein proposa da, beraz proposatutakoak eredu gisa soilik erabili daitezke.</p>

10.7.- Zazpigarren Jarduera

ZAZPIGARREN JARDUERA	
Helburua	Kontzertuko instrumentuak gertuagotik ezagutzea
Obra	Pieza desberdinak
Materiala	Instrumentu bakoitzaren bideoak Instrumentu bakoitzaren irudiak
Jardueraren garapena	<p>Urtero egin ohi dugun bezala, instrumentuen zatiak eta soinua lantzeko modu desberdinak proposatzen dizkizuegu. Lehenengo bideoa entzun daiteke, gero instrumentua asmatu eta gero beren atalak ikusi eta azkenik bideoa ikuskatu.</p> <p>Aurten berrikuntza txiki bat okurritu zaigu. Instrumentu bakoitzaren pieza entzun beharko dute eta entzuten ari diren bitartean instrumentuaren irudiaren puzlea osatuko dute. Instrumentu bakoitzeko puzle bat prestatu dugu.</p>